

**ERABAKIA, 2018ko irailaren 21ekoa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA Ikastetxe edo Zerbitzurako: F 490 Atezain nagusia lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa.-** Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2018ko uztailaren 30eko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Gerentearen erabakiaren bidez, 2018ko irailaren 21ekoa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena.-** Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.-** Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).

- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA).

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena.-** Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAn), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Hirugarrena.-** Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

**Laugarrena.-** Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa:** Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

**Bigarrena.-** Esleipena 2018ko irailaren 24ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHuren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

**Laugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena.-** Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2018ko irailaren 21ean

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINTASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

## **I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA**

**2018/07/30**

---

<b>Esleipenduna:</b>	<b>CONCEPCIÓN SANTISTEBAN ELOLA</b>
<b>Lanpostuaren Izena:</b>	<b>Atezain nagusia</b>
<b>Lanaldia:</b>	<b>Goizez jarraitua (sarrera 7:30ean), larunbatak barne</b>
<b>Eref.:</b>	<b>F 490</b>
<b>Zenbatgarrena:</b>	<b>41</b>
<b>Maila:</b>	<b>16</b>
<b>Taldea:</b>	<b>E</b>
<b>Eskala:</b>	<b>Menpekoa</b>
<b>H.E.:</b>	<b>2; 2008ko urtarrilaren 31</b>
<b>Langunea:</b>	<b>EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA</b>
<b>Campus:</b>	<b>BIZKAIA</b>
<b>BE:</b>	
<b>Ondorio data:</b>	<b>2018ko irailaren 24a</b>